ikusmer

Merkataritzaren Behatokia
Observatorio del Comercio



2016ko EKAINAK 10

# MERKATARITZA DATUETAN

## 2016ko 1go HIRUHILEKOA

# AURKIBIDEA


Salmenten bilakaera
3.ORRIALDEA

Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera
5. ORRIALDEA

Kontsumitzailearen konfiantzaren adierazlearen bilakaera
10. ORRIALDEA

Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera
11. ORRIADEA

ikusmer
Merkataritzaren Behatokia
Observatorio del Comercio

# SALMENTEN BILAKAERA



%1,9
TXIKIZKAKO SEKTOREA
SALMENTA NOMINALAK

## TITULUAK

*"EAEko txikizkako sektoreko salmenta nominalek urte arteko %1,9ko hazkundea jasan zuten 2016ko lehen hiruhilekoan"*

*"Lurralde historikoen artean Bizkaia da zenbateko onenak aurkezten dituen lurraldea urte arteko hazkunde nominala %3,3koa izanik"*

Eustaten datuen arabera, 2016ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,9 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegiak sartu gabe, %3,3 gehitu urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,2 nominala gehitu, urtaro-eraginak kenduta.

## EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA

### URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA
### 1. HIRUHILEKOA 2016

| | UNEKO PREZIOAK | | PREZIO FINKOAK | |
|---|---|---|---|---|
| **INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera** | t/t-4 | t/t-1 | t/t-4 | t/t-1 |
| **Euskal A.E.** | **1,9** | **0,2** | **1,9** | **0,6** |
| Araba | -0,5 | -0,2 | 1,7 | 0,6 |
| Bizkaia | 3,3 | 0,0 | 2,2 | 0,1 |
| Gipuzkoa | 0,7 | 0,9 | 1,5 | 1,4 |
| **INDIZE OROKORRA sektorearen** | | | | |
| **ELIKAGAIAK** | **4,7** | **0,9** | **3,3** | **0,5** |
| Elikagaietan espezializatuta | 0,3 | -0,2 | -2,3 | -0,9 |
| Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki | 7,0 | 1,8 | 6,0 | 2,0 |
| **BESTE PRODUKTUAK** | **2,3** | **0,4** | **0,9** | **0,6** |
| Pertsonen hornikuntza espezializatuta | 4,3 | 0,2 | 0,8 | 0,2 |
| Etxearen hornikuntza espezializatuta | 5,5 | 1,0 | 5,7 | 0,4 |
| Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta | -0,4 | -0,2 | 1,4 | 1,0 |
| Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki | -5,2 | 0,1 | -4,9 | 0,3 |
| **AUTOMOZIORAKO ERREGAIA** | **-13,2** | **-2,6** | **-0,2** | **-0,3** |
| **SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe** | **3,3** | **0,6** | **1,9** | **0,6** |

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak. t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak. 1.Taula. Iturria: Eustat.

# SALMENTEN BILAKAERA



%3,3

ELIKAGAIGINTZA TERMINO KONSTANTEETAN

ETXEKO EKIPAMENDUA %5,5



Elikagaien salmentak %4,7 gehitu ziren 2016ko lehen hiruhilekoan; gainerako produktuetan %2,3 gehitu eta automobilgintzarako erregaian %13,2 jaitsi, beti ere 2015eko aldi beraren aldean eta nominalki.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %0,3 gehitu; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %7,0. Gainerako produktuen merkataritzan, zeinu ezberdinak. Etxeko ekipamenduan espezializatuan %5,5eko gehikuntza; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %4,3; gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-5,2; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %-0,4.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %1,9 gehitu 2016ko lehen hiruhilekoan

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, nominalki: Bizkaian %3,3ko gehikuntza, Gipuzkoan %0,7; Araban %-0,5.

Txikizkako salmentek –gasolindegiak sartu gabe- %1,9ko gehikuntza erreala aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2016ko lehen hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,6ko gehikuntza 2015eko laugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan %3,3ko gehikuntza erreala, gainerako produktuetan %0,9, 2015eko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %0,2ko jaitsiera.

Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-2,3 dugu espezializatuan; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+6,0. Gainerako produktuen merkataritzan, gehikuntzak sektore guztietan, salbuespen batekin, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan (%-4,9). Etxeko ekipamenduan espezializatuan %5,7ko gehikuntza; kontsumo beste ondasunetan espezializatuan %1,4; pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %0,8.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Bizkaian %2,2, Araban %1,7, Gipuzkoan %1,5.




SALMENTAK TERMINO ERREALEAN

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

## TITULUAK

*"Hiru lurralde historikoetan urtetik urterako txikizkako afiliazioen hazkundea"*

*"Hiletik hilerako alderaketa: Aurreko hiruhilekoarekin erkatuz afiliazioen jaitsiera, gabonetako kanpainaren ondoren urtarrilean eta otsailean ematen diren ohiko bajen ondorioz"*

2.taulan 2016ko 1. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da.

Handizkako sektorean, martxoan gorakada ematen bada ere, hiruhileko saldoa negatiboa da erkidegoari zein hau osatzen duten lurralde guztiei dagokienez.

LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA. 2016ko 1go HIRUHILEKOA



| HANDIZKARIAK | ARABA | ALDAK. | GIPUZKOA | ALDAK. | BIZKAIA | ALDAK. | EAE | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16/01 | 5.579 | -%0,50 | 12.908 | -%0,66 | 20.944 | -%0,36 | 39.431 | -%0,48 |
| 16/02 | 5.546 | -%0,59 | 12.885 | -%0,18 | 20.912 | -%0,15 | 39.343 | -%0,22 |
| 16/03 | 5.585 | %0,70 | 12.974 | %0,69 | 20.895 | -%0,08 | 39.454 | %0,28 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | | | | | |
| 16/01 | 10.609 | -%3,54 | 25.203 | -%2,15 | 47.429 | -%2,24 | 83.241 | -%2,38 |
| 16/02 | 10.418 | -%1,80 | 24.745 | -%1,82 | 46.705 | -%1,53 | 81.868 | -%1,65 |
| 16/03 | 10.526 | %1,04 | 24.939 | %0,78 | 46.916 | %0,45 | 82.381 | %0,63 |
| **IBILG.ETA ORD.PIEZAK** | | | | | | | | |
| 16/01 | 2.077 | -%0,72 | 4.329 | -%0,30 | 6.370 | %0,06 | 12.776 | -%0,19 |
| 16/02 | 2.081 | %0,19 | 4.318 | -%0,25 | 6.392 | %0,35 | 12.791 | %0,12 |
| 16/03 | 2.076 | -%0,24 | 4.337 | %0,44 | 6.365 | -%0,42 | 12.778 | -%0,10 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | | |
| 16/01 | 18.265 | -%2,31 | 42.440 | -%1,52 | 74.743 | -%1,53 | 135.448 | -%1,63 |
| 16/02 | 18.045 | -%1,20 | 41.948 | -%1,16 | 74.009 | -%0,98 | 134.002 | -%1,07 |
| 16/03 | 18.187 | %0,79 | 42.250 | %0,72 | 74.176 | %0,23 | 134.613 | %0,46 |

2.taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA




Txikizkarien artean lurralde guztietan ibilbide berdina hautematen da, indar haundiagoz, urtarrilean eta otsailean hiletik hilerako jaitsierak ematen direlarik.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektoreak bilakaera irregularra duela esan daiteke, hilabete bakoitzean lurralde desberdin batean afiliazioen igoera ematen bada ere hiruhileko batezbestekoa aurreko hiru hilabetekoarekin alderatuz Bizkaian baino ez da positiboa.

Termino orokorretan, merkataritza sektorean, hiruhileko honetan afiliazioen jaitsiera eman da EAE osoan, lurralde guztietako saldoak aurreko hirihilekoko saldoekin erkatuz negatiboak baitira.

3. taulan 2015eko laugarren eta 2016ko lehen hiruhilekoei dagozkien lurralde eta erkidegoaren arteko afiliazioen erkaketa erakusten da.

**LURRALDE HISTORIKOAK. HIRUHILETIK HIRUHILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA. 2016ko 1go HIRUHILEKOA**



| | ARABA | ALDAK. | GIPUZKOA | ALDAK. | BIZKAIA | ALDAK. | EAE | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HANDIZKARIAK** | | | | | | | | |
| 15/4HH | 5.591 | | 12.996 | | 20.991 | | 39.578 | |
| 16/1HH | 5.570 | -%0,37 | 12.922 | -%0,57 | 20.917 | -%0,35 | 39.409 | -%0,43 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | | | | | |
| 15/4HH | 10.766 | | 25.323 | | 47.796 | | 83.886 | |
| 16/1HH | 10.518 | -%2,31 | 24.962 | -%1,43 | 47.017 | -%1,63 | 82.497 | -%1,66 |
| **IBILG. ETA ORD.PIEZAK** | | | | | | | | |
| 15/4HH | 2.089 | | 4.341 | | 6.365 | | 12.732 | |
| 16/1HH | 2.078 | -%0,53 | 4.328 | -%0,31 | 6.376 | %0,16 | 12.782 | %0,39 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | | |
| 15/4HH | 18.446 | | 42.661 | | 75.152 | | 136.195 | |
| 16/1HH | 18.166 | -%1,52 | 42.213 | -%1,05 | 74.309 | -%1,12 | 134.688 | -%1,11 |

3.Taula Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

1. grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera ikus daiteke, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik, EAE osorako.




1go grafikoa. Iturria: GSIN Lantzea: Ikusmer.

**URTETIK URTERAKO ERKAKETA**
**2016ko 1go HIRUHILEKOA**

| HANDIZKARIAK | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | EAE |
|---|---|---|---|---|
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 5.743 | 12.786 | 20.515 | 39.044 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 5.585 | 12.974 | 20.895 | 39.454 |
| Variación | -%2,75 | %1,47 | %1,85 | %1,05 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | |
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 10.311 | 24.437 | 46.228 | 80.976 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 10.526 | 24.939 | 46.916 | 82.381 |
| Variación | %2,09 | %2,05 | %1,49 | %1,74 |
| **IBILG. ETA ORD. PIEZAK** | | | | |
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 2.039 | 4.234 | 6.253 | 12.526 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 2.076 | 4.337 | 6.365 | 12.778 |
| Variación | %1,81 | %2,43 | %1,79 | %2,01 |
| **GUZTIRA** | | | | |
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 18.093 | 41.457 | 72.996 | 132.546 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 18.187 | 42.250 | 74.176 | 134.613 |
| Aldakuntza | %0,52 | %1,91 | %1,62 | %1,56 |

4. taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

4.taulan adierazten den moduan, azpisektoreka urtetik urterako azterketa berdina eginez Arabako-handizkako afiliazioetan baino ez da afiliazioen jaitsiera ematen. EAEko datua positiboa da Gipuzkoa eta bereziki Bizkaiko tiraldiari esker. Berdina gertatzen da ibilgailuen sektorean, sektore honetan bereziki positiboa da Gipuzkoako datua.

Txikizkako afiliazioen igoerari dagokionez ororen datua da lurralde guztietan.

EAE mailan, alderatutako afiliazioak azpisektore guztietan igo direla ikus daiteke, egoera hau aurreko urtean ere eman zen, aurten ibilbidearekin jarraituz. Txikizkarien eta ibilgailu eta ordezko pizen sektoreak dira zenbateko onenak aurkezten dituzten azpisektoreak, %2,5 baino hazkunde handiagoekin.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

## UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA 2016ko 1go HIRUHILEKOA

| | | GASTEIZ | ALDAK. | DONOSTIA | ALDAK. | BILBAO | ALDAK. | BARAKALDO | ALDAK. | GETXO | ALDAK. | IRUN | ALDAK. | LAUDIO | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HANDIZKARIAK | 16/01 | 4.108 | -%0,72 | 3.626 | -%0,85 | 5.140 | -%0,94 | 708 | %0,43 | 999 | -%1,48 | 1.482 | -%0,80 | 109 | -%4,39 |
| | 16/02 | 4.098 | -%0,24 | 3.616 | -% 0,28 | 5.136 | -%0,08 | 602 | -%14,97 | 996 | -%0,30 | 1.477 | -%0,34 | 103 | -%5,50 |
| | 16/03 | 4.123 | %0,61 | 3.619 | %0,08 | 5.125 | -%0,21 | 690 | %14,62 | 990 | -%0,60 | 1.476 | -%0,07 | 103 | %0,00 |
| TXIKIZKARIAK | 16/01 | 8.549 | -%3,64 | 8.905 | -%3,53 | 14.194 | -%2,51 | 4.884 | -%1,87 | 2.010 | -%2,76 | 2.455 | -%2,11 | 624 | -%1,89 |
| | 16/02 | 8.402 | -%1,72 | 8.607 | -%3,35 | 13.972 | -%1,56 | 4.749 | -%2,76 | 1.998 | -%0,60 | 2.425 | -%1,22 | 626 | %0,32 |
| | 16/03 | 8.501 | %1,18 | 8.712 | %1,22 | 13.908 | -%0,46 | 4.729 | -%0,42 | 1.996 | -%0,10 | 2.409 | -%0,66 | 631 | %0,80 |
| IBILG. ETA ORD. PIEZAK | 16/01 | 1.591 | -% 0,69 | 884 | % 0,23 | 1.368 | -%0,80 | 420 | %0,48 | 141 | -%0,70 | 583 | -%0,85 | 85 | -%4,49 |
| | 16/02 | 1.593 | % 0,13 | 880 | -%0,45 | 1.382 | %1,02 | 431 | %2,62 | 140 | -%0,71 | 587 | %0,69 | 84 | -%1,18 |
| | 16/03 | 1.590 | -% 0,19 | 887 | %0,80 | 1.372 | -%0,72 | 429 | -%0,46 | 141 | % 0,71 | 593 | %1,02 | 84 | % 0,00 |
| GUZTIRA | 16/01 | 14.248 | -%2,49 | 13.415 | -%2,58 | 20.702 | -% 2,01 | 6.012 | -% 1,44 | 3.150 | -%2,26 | 4.520 | -%1,53 | 818 | -%2,50 |
| | 16/02 | 14.093 | -%1,09 | 13.103 | -%2,33 | 20.490 | -%1,02 | 5.782 | -%3,83 | 3.134 | -%0,51 | 4.489 | -% 0,69 | 813 | -%0,61 |
| | 16/03 | 14.214 | %0,86 | 13.218 | %0,88 | 20.405 | -%0,41 | 5.848 | %1,14 | 3.127 | -%0,22 | 4.478 | -%0,25 | 818 | %0,62 |

5.taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

5.taulan , sektoreka, 2016ko lehen hiruhilekorako eta EAE-ko zazpi merkataritza udalerri naguisientzako afiliazioen hiletik hilerako bilakaera azaltzen da. Txikizkako zein handizkako sektorean, urtarrileko eta otsaileko zenbateko negatiboek hiruhileko osoko datuak baldintzatzen dituzte.

Handizkako sektorean Barakaldo da urteko lehen bi hilabetetan hazkundea duen udalerri bakarra (+%0,43 urtarrilean). Martxoan Gasteizen, Donostian eta Barakaldon afiliazioen igoera ematen da.

Txikizkariei dagokienez Laudio da urtarrilean eta otsailean hazkundea duen udalerri bakarra (+%0,32). Martxoan Gasteizen, Donostian eta Laudion afiliazioen igoera ematen da.

## UDALERRIAK.HIRUHILETIK HIRUHILERAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA 2016ko 1go HIRUHILEKOA

| HANDIZKARIAK | GASTEIZ | ALDAK. | DONOSTIA | ALDAK. | BILBAO | ALDAK. | BARAKALDO | ALDAK. | GETXO | ALDAK. | IRUN | ALDAK. | LAUDIO | ALDAK. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 15/4HH | 4.130 | | 3.658 | | 5.163 | | 703 | | 1.020 | | 1.479 | | 112 | |
| 16/1HH | 4.110 | -%0,48 | 3.620 | -%1,04 | 5.134 | -%0,56 | 667 | -%5,17 | 995 | -%2,48 | 1.478 | -%0,02 | 105 | -%5,97 |
| **TXIKIZKARIAK** | | | | | | | | | | | | | | |
| 15/4HH | 8.654 | | 8.989 | | 14.377 | | 4.844 | | 2.055 | | 2.479 | | 641 | |
| 16/1HH | 8.484 | -%1,96 | 8.741 | -%2,75 | 14.025 | -%2,45 | 4.787 | -%1,16 | 2.001 | -%2,63 | 2.430 | -%2,00 | 627 | -%2,13 |
| **IBILG ETA ORD. PIEZAK** | | | | | | | | | | | | | | |
| 15/4HH | 1.603 | | 880 | | 1.383 | | 421 | | 141 | | 584 | | 89 | |
| 16/1HH | 1.591 | -%0,71 | 884 | %0,42 | 1.374 | -%0,63 | 427 | %1,27 | 141 | %0,00 | 588 | %0,69 | 84 | -%5,60 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | | | | | | | | |
| 15/4HH | 14.386 | | 13.527 | | 20.922 | | 5.968 | | 3.217 | | 4.542 | | 842 | |
| 16/1HH | 14.185 | -%1,40 | 13.245 | -%2,08 | 20.532 | -%1,86 | 5.881 | -1,46% | 3.137 | -%2,48 | 4.496 | -%1,01 | 816 | -%3,01 |

6.taula. Iturria: GSI. Lantzea: Ikusmer.

# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Ibilgailu eta ordezko piezen sektorean egoera ez da homogeneoa, udalerri guztiek hazkunde zein jaitsierak dituzte hiruhilekoa osatzen duten hilabete desberdinetan.

Termino orokorretan, merkataritza sektorerako eta aurreko hiruhilekoko zenbatekoekin alderatuz, udalerri guztietan ematen da afiliazioen jaitsiera.

6. taulan 2016ko lehen hiru hilabeteko hiruhiletik hiruhilerako afiliazioen bilakaera azaltzen da EAEko merkataritzako zazpi udalerri nagusientzako.



BARAKALDO
%5,77
MERKATARITZA SEKTOREAREN HAZKUNDE OSOA

%4,35
TXIKIZKAKO SEKTOREA

%17,15
HANDIZKAKO SEKTOREA

%5,15
IBILG ETA ORD. PIEZEN SEKTOREA

7.taulan azpisektoreka 2015-2016 eperako eta igarotako lehenengo hiruhilabeteko urtetik urterako bilakaeraren alderaketa aurkezten da. Txikizkako sektorearen datuak bereziki positiboak dira hiru hiriburuetan eta bereziki Barakaldon, +%4,35eko hazkundearekin. Udalerri hauetan afiliazioen hazkundea ematen da.

Bere aldetik, handizkako sektoreak Irunen, Bilbaon eta bereziki Barakaldon (+%17,15) afiliazioen igoera ematen da. Ibilgailu eta ordezko piezen sektorean Gasteizen, Donostian, Barakaldon eta bereziki Irunen (+%6,65) afiliazioen hazkundea hauteman daiteke. Orokorrean, merkataritza sektoreari dagokionez, Getxon eta Laudion baino ez da jaitsierarik ematen.

## URTE ARTEKO AFILIAZIOEN ALDERAKETA 2016ko 1go HIRIHILEKOA

| TXIKIZKARIAK | GASTEIZ | DONOSTIA | BILBAO | BARAKALDO | GETXO | IRUN | LAUDIO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 8.247 | 8.545 | 13.906 | 4.532 | 2.049 | 2.451 | 626 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 8.501 | 8.712 | 13.908 | 4.729 | 1.996 | 2.409 | 631 |
| Aldakuntza | %3,08 | %1,95 | %0,01 | %4,35 | -%2,59 | -%1,71 | %0,80 |
| **HANDIZKARIAK** | | | | | | | |
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 4.358 | 3.658 | 5.067 | 589 | 1.046 | 1.381 | 107 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 4.123 | 3.619 | 5.125 | 690 | 990 | 1.476 | 103 |
| Aldakuntza | -%5,39 | -%1,07 | %1,14 | %17,15 | -%5,35 | %6,88 | -%3,74 |
| **IBILG ETA ORD.PIEZAK** | | | | | | | |
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 1.559 | 874 | 1.379 | 408 | 141 | 556 | 105 |
| 2016ko afiliazioak (martxoaren 31an) | 1.590 | 887 | 1.372 | 429 | 141 | 593 | 84 |
| Aldakuntza | %1,99 | %1,49 | -%0,51 | %5,15 | %0,00 | %6,65 | -%20,00 |
| **GUZTIRA** | | | | | | | |
| 2015eko afiliazioak (martxoaren 31an) | 14.164 | 13.077 | 20.352 | 5.529 | 3.236 | 4.388 | 838 |
| 2016ko afilizioak (martxoaren 31an) | 14.214 | 13.218 | 20.405 | 5.848 | 3.127 | 4.478 | 818 |
| Aldakuntza | %0,35 | %1,08 | %0,26 | %5,77 | -%3,37 | %2,05 | -%2,39 |

7.taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

# KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAREN BILAKAERA

Urtarrileko KKA 99,1 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz 8,3 puntu azpitik. KKA-ren jaitsiera hau uneko egoeraren balioztapenaren atzera-egitearen (2,8 puntu gutxiago) eta bereziki igurikimenen atzerapausoaren ondorioz ematen da (-13,9 puntu).

Otsaileko KKA-ri dagokionez 95,2 puntutan kokatzen da aurreko hilabeteko zenbatekoarekin erkatuz 3,9 puntu azpitik. KKA-ren jaitsiera hau igurikimenen balioztapenak atzera egiten duelako (3 puntu murrizten da) eta bereziki uneko egoeraren indizearen atzerapausoaren ondorioz gertatzen da (-4,7 puntu). Hau horrela, KKA-k urteko lehenengo bi hilabeteetan %11a baino gehiago galtzen du, igurikimenen jaitsiera %14koa eta uneko egoeraren adierazlearena %8koa izanik.

Azkenik martxoko KKA 92,6 puntutan kokatzen dela ikus daiteke, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz 2,6 puntu azpitik., hau horrela, adierazlea azken 14 hilabeteetan lortutako balioen azpitik kokatzen da. KKAa
n ematen den atzerapusu hau uneko egoeraren balioztapenaren jaitsieraren (-2,1puntu) eta igurikimenen adierazlearen zenbatekoaren jaitsieraren (-3,1puntu) ondorioz

## TITULUAK

*"Lehen hiruhileko KKA, aurreko hiru hilabetekoko datuekin alderatuz %8an jaitsi zen igurikimenen adierazlearen jaitsieraren ondorioz."*

*" Aurreko urteko hiruhileko berdineko datuekin erkatuz jaitsiera %4,1ekoa izan zen"*

| URTEA/HILABETEA | KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA | UNEKO EGOERAREN ADIERAZLEA | IGURIKIMENEN ADIERAZLEA |
|---|---|---|---|
| 15/01 | 99,60 | 85,10 | 114,10 |
| 15/02 | 99,00 | 85,70 | 112,30 |
| 15/03 | 100,40 | 87,10 | 113,70 |
| 15/04 | 101,80 | 91,00 | 112,60 |
| 15/05 | 103,10 | 91,60 | 114,60 |
| 15/06 | 101,40 | 90,70 | 112,00 |
| 15/07 | 105,60 | 96,40 | 114,70 |
| 15/08 | 105,90 | 98,20 | 113,70 |
| 15/09 | 106,10 | 97,20 | 114,90 |
| 15/10 | 99,80 | 89,40 | 110,20 |
| 15/11 | 104,60 | 94,20 | 114,90 |
| 15/12 | 107,40 | 95,20 | 119,60 |
| 16/01 | 99,10 | 92,40 | 105,70 |
| 16/02 | 95,20 | 87,70 | 102,70 |
| 16/03 | 92,60 | 85,60 | 99,60 |

8.Taula. Iturria: CIS. Estatu mailako datuak
Lantzea: Ikusmer.

Hiruhileko honetako bilakaerak ibilbide oso negatiboa aurkezten du 2015eko azken hiru hilabetekoan emandako jaitsiera arina handituz. Urteko lehen hiruhilekoko KKA-k aurreko hiru hilabetekoaren datuekin erkatuz %8a galtzen du. Jaitsiera hau nagusiki igurikimenen adierazlearen jaitsieraren ondorioz (-%10,6) ematen da, uneko egoeraren adierazlean gertatutako jaitsierak neurridunagoak baitira (-%4,7). Aurreko urteko hiruhileko berdineko datuekin alderatuz, atzerapausua azpimarratzeakoa da (-%4,1) azken 11 hiruhilekoetan emandako urte arteko hazkunde jarraituaren joerarekin bukatuz.

### KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAK




2.grafikoa. Iturria:GSIN. Estatu mailako datuak. Lantzea: Ikusmer.

# KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

## TITULUAK

*"Urtarrileko KPIa %0,1ean kokatu zen argindarraren merketzearen ondorioz"*

*" Euskadiko KPIa Espainiako inflazioaren (-%0,3) eta euro guneko inflazioaren (+%0,3) erdibidean aurkitzen da "*

| URTEA/HILABETEA | ADIERAZLEA | HILEKO ALDAKUNTZA | AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ | URTEKO ALDAKUNTZA |
|---|---|---|---|---|
| 16/01 | 102,4 | -2,0 | -2,0 | 0,1 |
| 16/02 | 101,9 | -0,4 | -2,4 | -0,5 |
| 16/03 | 102,6 | 0,7 | -1,7 | -0,4 |

9.taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.
Uniitatea: 2011ko oinarria=100




3. Grafikoa. iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

## URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA 2016ko urtarrila

| KPI TALDE NAGUSIAK | EUSKADI | ESPAINIA | EUROGUNEA |
|---|---|---|---|
| **INIDIZE OROKORRA** | **0,1** | **-0,3** | **0,3** |
| Elikagaiak eta alkoholik gabeko | 2,9 | 2,1 | 0,7 |
| Alkoholdun edariak eta tabakoa | 0,6 | 0,9 | 2,0 |
| Jantziak eta oinetakoak | 0,3 | 0,4 | 0,5 |
| Etxebizitza | -5,3 | -6,0 | -1,2 |
| Etxeko hornidura | 0,0 | 0,1 | 0,6 |
| Medikuntza | 1,0 | -0,4 | 0,6 |
| Garraioak | -1,6 | -1,9 | -1,0 |
| Komunikazioak | 1,2 | 1,2 | 0,0 |
| Aisia eta kultura | -0,3 | -0,2 | 1,2 |
| Irakaskuntza | 0,6 | 0,5 | 1,6 |
| Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 1,2 | 1,3 | 1,6 |
| Beste batzuk | 1,8 | 1,5 | 1,0 |

10. taula. Iturria: EIN eta Eurostat.

Urtarrilean, KPI indizeak urte arteko tasa positiboei eutsi zien (%0,1), baina bi hamarrenetan jaitsi zen bere balioa 2015eko azken hilekoan jasotakoaren aldean, argindarraren merkatzearen ondorioz. Hain zuzen ere, argindarra ia %13 merkatu zen 2015eko urtarrilaren aldean. Hala ere, azpiko inflazioa, hondoko joera hobeto adierazten baitu, hamarren bat igo zen eta gaur egun %1,1ean dago kokatuta.

Inflazioa %-0,5ean kokatu zen otsailean, aurreko hilekoaren aldean sei hamarren jaitsi ondoren. Hori horrela izanda, bi hilekoz jarraian eremu positiboan igaro eta gero, KPI indizea berriro balio negatiboetara itzuli zen. Jaitsieraren arrazoia, bereziki, erregaien merkatzea izan zen eta, neurri txikiagoan, landu gabeko elikagaien prezioen bilakaera.

Inflazioa tasa negatibotan kokatu zen bigarren hilekoz jarraian, nahiz eta aldakun tza tasa hamarren bat goratu zen otsaileko emaitzaren aldean (%-0,5etik %-0,4ra igaro zen). Berriro ere, balio apal horiek lortzeko eragile nagusia erregaiak izan ziren. Hala ere, azken asteetan petrolio gordinaren salneurriak goranzko joera hartu du eta litekeena da inflexio gunea bizi izana.

Urtarrilean, KPIa osatzen duten hiru talde tasa negatibotan zeuden, petrolioari eta argindarrari lotuen daudenak (garraioa eta etxebizitza), eta aisia eta kultura. Orobat, igoerak hutsalak izan ziren etxeko tresnerian, eta oso apalak hezkuntzan eta edari alkoholdunak eta tabakoa taldean (%0,6). Aitzitik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariek (%2,9) bakarrik gainditu zuten %2,0ko erreferentzia.